

# HAUR ETA GAZTEEN AISIALDIKO ZUZENDARIA

Aisialdiko Eskolak trebaketa-zentro espezializatuak dira, eta bakoitzak bere ereduari jarraituz, antolatutako mugimenduen bitartez arlo honetan trebatzeko eskabide berria eta handiari erantzuna emateko eskaintzen duten hezkuntza-proiektua zehaztu behar dute.

## SARTZEKO BALDINTZAK

- 21 urtetik gora izatea, edo matrikulazio-urte barruan adin hori izatea.
- Ikastaroaren hasieran, **Aisialdiko Begirale izateko agiri ofizialaren jabe izatea.**
- Bigarren Heziketaldia edo horren baliokide den beste mailaren bat gaindituta izatea edo, kanpotik etorritz gero, jatorrizko estatuko hezkuntza-sisteman horren pareko dena.

## Trebakuntza-aldi teorikoa

ARLO AMANKOMUNAK (gutxienez 90 ordu)

- Heziketa-taldea.
- Haur eta Gazteei lotutako politikaren azterketa.
- Gaur egun haurreriak eta gazterriak duten egoeraren azterketa.
- Aisialdiaren inguru soziokulturalari buruzko azterketa.
- Heziketa-proiektua eta -plangintza Aisialdian.
- Legeria Aisialdiari dagokionez.
- Ekonomia- eta administrazio-kudeaketa eta -antolaketa Aisialdian.

## Trebakuntza-aldi praktikoa

Bi eratarata bete daitezke: bai era trinkoan, bai ikastaroan zehar sakabanatuta, baina, beti ere, trebakuntza-aldi teorikoa bukatu eta hurrengo urteko iraila baino lehen.

Era trinkoan: Programatutako jarduera praktikoa batean parte hartuz baino ezin izango da burutu, udaleku batean, kanpamenduan, ibilaldian edo antzeko ekintza batean. Gutxienez 12 egun jarraian bete beharko dira (iraupena 120 orduetik gorakoa izango da).

Sakabanatuta: Horrela azalduz gero, praktika-aldia trebakuntza teorikoarekin batera egin ahal izango da. Iraupena, gutxienez, hiru hilabetekoa izango da eta, 120 ordu bete beharko dira.

Trebakuntza-aldi praktikoa arduradun Aisialdi Zuzendari titulu ofiziala duen pertsona bat izango da. Ardura hori bere borondatez hartuko du bere gain, beti ere, eskolaren irizpideen arabera.

## IZEN-EMATEA

Matrikula-epea Irailean izaten da.

\* Aisialdi eskola batzuk irailaz gain beste data batzuk eskaintzen dituzte, hoberena beraiekin kontaktuan jartzea da.

ESKOLA	HELBIDEA	WEB
<b>URTXINTXA</b>	Mundaiz bidea 8 - 2 E 20012 DONOSTIA Tfnoa.: 943 270033 Faxa: 943 270079 <a href="mailto:gipuzkoa@urtxintxa.org">gipuzkoa@urtxintxa.org</a>	<a href="http://www.urtxintxa.org">http://www.urtxintxa.org</a>
<b>HEZKIDE ESKOLA</b>	Heriz pasealekua, 82 20080 DONOSTIA Tfnoa.: 943 311474 Faxa: 943 311476 <a href="mailto:hezkide@euskalnet.net">hezkide@euskalnet.net</a>	<a href="http://www.hezkide.org">http://www.hezkide.org</a>
<b>EZIKO</b>	Heriz pasealekua, 16 20008 DONOSTIA Tfnoa.: 943 217413 / 660 382753 Faxa: 943 473789 <a href="mailto:ezikoeskola@hotmail.com">ezikoeskola@hotmail.com</a>	<a href="http://www.ezikoudalekua.net">http://www.ezikoudalekua.net</a>
<b>LARRUNARRI</b>	Txallupagille plaza, 2 - behea 20006 DONOSTIA Tfnoa.: 943 473108 / 653 728002 <a href="mailto:larrunarrieg@euskalnet.net">larrunarrieg@euskalnet.net</a>	<a href="http://www.larrunarri.com">http://www.larrunarri.com</a>
<b>LIBRE HENRY DUNANT- GURUTZE GORRIA</b>	Ategorrieta, 10 20013 DONOSTIA Tfnoa.: 943 222222 Faxa: 943 326511 <a href="mailto:jumaur@cruzroja.es">jumaur@cruzroja.es</a>	
<b>MUNDO NUEVO</b>	Amara kalea, 23 20006 DONOSTIA Tfnoa.: 943 457511 Faxa: 943 457511	

**Iturria:** EUSKO GAZTEEN INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO ZENTRO KOORDINATZAILEA